

5

Ahozkotasuna soziolinguistikaren behatokitik

Kike Amonarriz Gorria

Soziolinguista

kikeamonarriz@gmail.com

Sarrera-data: 2015-09-03 / Onartze-data: 2015-10-15

Laburpena. Soziolinguistikaren ikuspegitik ahozkotasunaren gaia Euskal Herrian zein neurritan landu den aztertuko dugu. Euskal soziolinguistikaren hastapenetan ahozkotasuna ez zen gehien jorratutako gaien artean kokatu, lehentasunak beste esparru batzuetan zeudelako. Hitzunen kopurua ugaldu eta hizkuntza normalizazio prozesuak aurrera egin ahala, ordea, gero eta interes handiagoa azaldu da eus-kalgintzan erabilitako hizkuntzaren nolakotasunaren eta ahozkotasunaren inguruan. Era berean, hizkuntza kalitatea edo kode nahasketa bezalako gaiak garrantzi handiagoa hartu dute soziolinguistika ikergaietan. Artikuluan zehar, ahozkotasunaren lanketak euskararen erabileran duen garrantzia nabarmenduko da eta lan-ildo zehatzak proposatuko dira. • *Hitz gakoak:* soziolinguistika, ahozkotasuna, kalitatea, erabilpena, tipologiak, euskara kolokiala

Abstract. We will be examining the extent of the subject of orality in the Basque Country from the sociolinguistic perspective. Orality was not among the most developed subjects in the early days of Basque sociolinguistics, because the priorities were to be found in other spheres. As the number of speakers has increased and the normalisation processes have advanced, increasing interest has emerged surrounding the quality of the language used in Basque language activity and orality. At the same time, subjects such as language quality or code-mixing have become increasingly important in the subjects of research in sociolinguistics. Throughout the article the importance that developing orality has in Basque use will be highlighted and specific lines of work will be proposed. • *Key words:* sociolinguistics, orality, quality, use, typologies, colloquial Basque.

ATARIKOA

I
Ikastaroaren antolatzaileek gaia lantzeko proposatu zidatenean baiezkoa erantzun nuen, ohartu nintzelako, alde edo moldez, ahozketasuna eta soziolinguistika uztartu ditudala nire jarduera profesionalaren etapa eta egitasmo gehienetan: txiste kontalari aritu nintzenean, “Hizkuntza kalitatea”ri buruzko txostena lantzean, “Zazpiak Batman” kolektiboaren hitzaldi eta argitalpenetan, HIZNET ikastaroan jorratzen dudana “Gazte hizkerak eta hizkuntza kalitatea” gaian, han-hemenka bideratutako egitasmo, emandako hitzaldi edo izandako elkarrizketetan eta nola ez, telebistako programetan: *Txiskola*, *Mihiluze* edo *Tribuaren berbak*, esate baterako.

Baina proposatu didaten begiratu berria da niretzat. Eta nondik heldu pentsatzen jarrita, berehala sortu dira galderak: noiztik jorratu da ahozketasunaren gaia soziolinguistikaren ikuspegitik? Bere gaitzat hartu al dute euskal soziolinguistek? Soziolinguistikak aintzat hartu beharreko gaia al da? Zergatik ez da gehiago landu orain arte?

Eta hasteko konstatazio bat: ahozketasunaren inguruko interesa, oraindik ere, irakaskuntzan fokalizatzen da. Horren froga, ikastaroaren ia partaide guztiak irakaskuntzarekin lotura estua duten pertsonak izatea.

SOZIOLINGUISTIKA ETA AHOZKOTASUNA: ZERTAZ ARI GAREN

I
“*Soziolinguistika eskuliburua*”n honela definitzen da zientziaren adar hau:

“Gizartearen eta hizkuntzaren arteko elkarreagina aztertzen du. Bi soziolinguistika ezberdin bereiz daitezke: aztergai nagusia hizkuntza bera duena, bata eta hizkuntza entitate sozial moduan hartzen duena, bestea. Lehenengoa hizkuntzalaritzatik hurbilago dago; bigarrena, aldiz soziologiatik”.

Euskarazko Wikipediak esaten digu adiera hertsian, soziolinguistika hizkuntzalaritzaren adarra dela eta hizkuntzak jendartearen dituen arazoez arduratzen dela (argotak, haur hizkerak, etab.). Adiera zabalean, aldiz, hizkuntza eta gizartea harremanetan jartzen duen oro hartuko luke bere baitan. Ingelesezkotan berriz soziolinguistika eta hizkuntzaren soziologia honela bereizten dira: soziolinguistikak hizkuntzak gizartearen duen eragina aztertzen du eta hizkuntzaren soziologiak gizartearen hizkuntzarengan duen eragina.

Ahozketasunaren inguruko interesa, oraindik ere, irakaskuntzan fokalizatzen da. Horren froga, ikastaroaren ia partaide guztiak irakaskuntzarekin lotura estua duten pertsonak izatea.

Euskalgintzan soziolinguistika zer den galdetuz gero, ziur naiz, erantzunek euskarazko adiera zabalaren alde joko luketela eta gehiago hurbilduko lirakeela *sociology of language*-ra *sociolinguistics*-era baino. Izan ere, Euskal Herrian, hizkuntzaren egitate soziala aztertzeko eta euskararen egoeraren eraldaketarako erabili nahi izan den soziolinguistika gailendu da. Jarrerak, ezagupen-mailak eta erabilera ikertu dira batez ere, beti ere euskararen normalizazioa helburu; eta ez zaio horrenbeste begiratu erabilitako euskararen nolaketasunari.

Horretan, eragina izan du, nire ustez, Soziolinguistikak edo Hizkuntza Plangintzak ez dutela izan eta gaur egun ere ez dutela, unibertsitate mailan beharko luketen lekua. Euskal Herriko hizkuntza normalizazio prozesuak duen garrantzia eta nazioartean duen eta izan dezakeen oihartzuna kontutan izanik, behar eta mereziko lukeena baino askoz ere garrantzi gutxiago du Euskal Herriko unibertsitateetako eskaintza akademikoan. Horrek ekarri du, ikerketa soziolinguistikoa, neurri handi batean, erakunde publikoetatik eta euskalgintzatik bultzatu izana, eta beraien behar eta lehentasunetara egokitua izatea.

Testuinguru honetan, zenbait lekutan soziolinguistikaren ikergaiak izan direnak (hizkeren bilakaera edo soziolektoak, esate baterako), Euskal Herrian gai linguistikotzat jo izan dira maiz eta ez dira aztertu soziolinguistikaren ikuspegitik. Ahozketasuna, hizkuntzalariek edo didaktikariek jorratu beharreko gai gisa ikusi izan da, eta ez soziolinguistikatik jorratu beharreko gaitzat.

AHOZKOTASUNA EUSKAL SOZIOLINGUISTIKAN

Euskal Herrian ikerketa soziolinguistikoen aitzindari izan zen SIADECO eta bertan, bereziki, Iñaki Larrañaga. Garai hartan abiatu zituzten lan garrantzitsuenen artean daude "Euskararen liburu zuria" (1978), "Hizkuntza borroka Euskal Herrian" (1979) eta ondorengo urteetan Gipuzkoan aurrena eta hainbat udalerritan ondoren burututako azterketa soziolinguistikokoak. Ikerketa horiek guztiak, hizkuntza planifikazioari eta euskararen estatusaren hobekuntzari begira egin ziren. Eta hurrengo hamarkadetan, administrazio publikoek edo herri mugimenduek eraginda landutako soziolinguistika ere bide beretik joan zen.

Euskal Herrian, soziolinguistikaren inguruko lehen biltzar garrantzitsua Getxon egin zen 1984. urtean, soziolinguista euskaldunak, katalanak eta gailegoak biltzen zituen "*Iruñean sortua*" taldeak bultzaturik. Antolatzaileen artean, besteak beste, *Txillardeg*i, Mari Jose Azurmendi, Pakita

Arregi eta Joanmari Torrealdei izan ziren eta partaideen artean, Lluís Aracil, José María Sánchez Carrión, Txepetx, edo William F. Mackey. Bertako antolaketa batzordean esku hartzea egokitu zitzaidanez, esan dezaket, ahozketasunaren gaia orduko kezka eta lehenetsunetatik urrun zegoela. Batzarreko ekarpenak biltzen dituen liburuan ahozketasunak duen aipamen zuzen bakarra, Itziar Idiazabalena da. Uste dut, bertan irakurri zuen “Euskara eta eskola” ponentziaren zati honek oso ondo islatzen duela orduan gaiaren inguruan gehienok genuen ikuspegia:

“Euskaldunek ere beharrezkoa dute hizkuntza eredu jantziak menderatzea eta zerregin garrantzitsu hori behar du gure eskolak ardatz bezala”. Baina ezin eskatu eskolari **gaur gaurkoz behintzat**, jolaserako, kaleko berrikerarako, adarra jotzeko euskara ere erakustea.” Eta aurreraxeago: “Ez da kasualitatea behar bada euskararen ikerketa osoan euskara mintzatuari atxikirik eginiko lan gehienak —guztiak ez esatearren— idatziari lotu zaizkiola, ortografia dala, esaldiaren joskera dala, hiztegiak dirala.” (Azpimarra nirea da).

Estatusari dagokionez, orduko lehenetsunak eta eztabaidagaiak euskararen ofizialtasuna eta lege babesa, normalizazio prozesuaren erakundetzea, hiztunak lortzea, euskarazko ereduak zabaltzea eta eremu sozio-funtzionalak irabaztea ziren. Corpusaren inguruan, batua finkatu eta zabaltzea, eta horretarako behar ziren terminologia, testu-liburuak, hiztegiak etab. lantzea. Erabilera informalak edo ahozketasuna ez zeuden jorratu beharreko lan-ildo garrantzitsuenen artean.

Ezin dugu ahaztu, bestalde, euskaldunak bitan zatitu gintuen euskara batuari buruzko eztabaidatik gentozela. Eztabaida horretan, euskalkien defentsa eta ahozketasunaren bandera batuaren aurkakoen esku geratu ziren. Euskal soziolinguistikaren aitzindari eta bultzatzaileen artean, zer esanik ez, batuaren aldeko jarrera erabatekoa zen. Gerra hartan aukera asko galdu genuen, ordea: euskara jatorra prestigiatu eta hobeto transmititzeko aukera, estandarra euskalkien ekarpenekin gehiago eta modu orekatuagoan aberastekoa, edo estandar malguagoa eta erregistro gehiagokoa egitekoa. Gaur egungo belaunaldia, oharkabean bada ere, aurreko belaunaldiaren bi ikuspegi kontrajarri haien arteko sintesiaren bila ote dabilen susmoa dut.

Eta erantsiko nuke garai hartan aurreikusten eta benetan sinisten zela ikasleek euskara ikasiz gero, kalean ere euskaraz egingo zutela eta behin euskara formala ikasiz gero, informalaz erraz jabetuko zirela. Ez da harritzekoa, beraz, ahozketasunaren gaia erabat alboratuta egotea.

***Eta erantsiko
nuke garai
hartan
aurreikusten eta
benetan sinisten
zela ikasleek
euskara ikasiz
gero, kalean ere
euskaraz egingo
zutela eta behin
euskara formala
ikasiz gero,
informalaz erraz
jabetuko zirela.
Ez da
harritzekoa,
beraz,
ahozketasunaren
gaia erabat
alboratuta
egotea.***

Baina, joan den mende amaieran, uste hauek erlatibizatzen eta lehentasunak aldatzen joan ziren:

- Euskara batuaren onarpena orokortu egin zen gizartean.
- Batua, abiadura handian zabaldu zen ia esparru guztietara: administrazioa, hezkuntza, hedabideak... Baina teiltua osatzen ari ginela, ura “soto”tik hasi zitzaigun sartzen —Mikel Zalbidetik aipatu ohi duen metafora erabiliz—, eta kezka erabilera formaletatik erabilera informalerara lerratzen hasi zen.
- Hitzunen tipologiak aldatu egin ziren. 60ko hamarkadan gazte gehienak erdaldunak ziren eta gazte euskaldunen artean gehienak euskara etxean jasotakoak. Mende amaieran, aldiz, gazte gehienak familia erdaldunetan hazitako euskalkirik gabeko euskaldun berriak ziren.
- Irakaskuntzan ez ziren aurreikuspenak bete. Eguneroko errealitateak eta egindako ikerketek erakusten zuten, D ereduko ikasleen euskara maila eta erabilera, ez zirela espero edo nahi zirenak. Maila formalean aritzeko gaitasuna lortu arren — lortzen zutenek—, ikasle askok —batez ere eremu erdaldunetakoek— edo ez zuten euskaraz egiten edo zailtasunak zituzten maila kolokialean euskaraz aritzeko.
- “*Euskañol*”aren eta “*frantseuskara*”ren erabilera orokortu egin zen. Euskara “*erreal*” kezka iturri bihurtu zen. Euskaraz ari ziren gazteen artean, kode nahasketaren erabilera orokortu egin zen, baita eremu euskaldunetan ere, askotan zaila izanik erabakitzea euskaraz kutsatutako erdara edo erdaraz kutsatutako euskara ote zen.
- Mende honen hasieratik, bestalde, euskalkien edo hizkera kolonialen aldeko joerak indartu egin dira, eztabaida hau irakaskuntzara eta hedabideetara ere heldu delarik.

Kezka eta helburu nagusia hitzun berriak sortzea izatetik, pare bat hamarkadetan, erabilera eza edo erabilitako euskara bera izatera pasa zen. Horren eraginez, hizkuntza kalitatea edo ahozketasuna bezalako kontzeptuak gero eta maizago hasi ziren agertzen euskaltzaleen idazki eta hausnarketetan.

Orduan hasi ginen ohartzeko, ikastetik erabiltzera uste genuena baino amildegia handiagoa zegoela eta jauzi hori uste baino konplexuagoa zela. Eta egoera minoritarioan dagoen hizkuntzaren hedapenak, berekin ekarri ohi duela hedatzen den hizkuntzaren “kalitate”aren galera nolabaitekoa, erdararen kutsaduragatik bereziki, baina baita ere, barruko faktoreengatik.

Baina gai guztietan gertatu ohi den bezala, honetan ere izan dira aitzindariak. Lantzen ari garen aztergaietako asko, oso antzeko formulazioekin jorratu zituzten duela 30 bat urte Koldo Izagirre eta Anjel Lertxundi idazleek. Honela zioen Koldo Izagirrek “Euskal lokuzioak” liburuan (1981):

“Lizardik baino prosa “hobeagoa” idazten du gaur edozein gaztek, baina inork ez du haren grazia (...) Mintza eta idazketa korrekto bat ahalegindu gara egiten, estilorik gabeko bat, jardun neutro bat, mintza eta idazketa inuzentaren bila. Eta beharrezkoa zen. Bizitasuna sakrifikatu behar zen korrektotasunaren truke, euskara biziko bazen”.

Anjel Lertxundik 1982an, hizkuntza eskolan zerbait pasibo bezala hartzen zela azaldu zuen “*Haur literaturaz*” liburuan. Haurrak ez zirela motibatzen, eskolak imitazioari bakarrik ematen ziola garrantzia eta hurrek ez zutela hiztegiaren posibilitate aberatsik jasotzen. Gero eta espresibitate gutxiagoko hizkuntza mintzatzeko zela eta erreferentzia mundu berririk ez ginela sortzen ari:

“Gero eta konzienteagoak gara gure ikasleek hizkuntza pobrea, errekursorik gabea darabiltela. Jode eta ostia bezalakoak ez dira takoak gure neska-mutilen ahotan, espresio faltaren makuluak baizik.”

Bestalde, Mikel Zalbidetik “*Eskola-munduan erabiltzen den euskara: egungo egoera eta zenbait hobekuntza-bide*” artikulua argitaratu zuen *Euskera* aldizkarian 1994an, maiz aipatu izan ditugun ideia hauek plazaratuz: familia euskaldunetako haur asko sena galduz zihoala, ideiak euskaraz azaltzeko gaitasuna erasanda zutela, kode-nahasketa aspaldiko kontua zela edo zuzentasunak ezin zuela erabilera tratatu.

Ahozketasunaren lanketak hizkuntzaren erabileran duen garrantziaz jabetzen joan garen heinean, garrantzi handixeagoa hartu du euskal soziolinguistikan ere, gaiaren inguruko ikerketak oraindik gutxi izan arren. BAT 87/88 aldizkariaren “Euskal soziolinguistika ikerketa. Azken urteotako begirada” alean zerrendatzen diren ikerketei gainbegiratu emanda, ahozketasunarekin lotura zuzen samarra dutenak 175etik dozena bat dira. Ale bereko Patxi Juaristiren “Ikergaien arabera hamazazpi ikerlerro euskal soziolinguistikan” artikuluan ere, ahozketasuna ikergetzat har dezateken ikerlerroak aipatzen dira, baina ez zuzenki gaia jorratu duen adibiderik.

Aurreko pasartean hainbat hitz beltzez agertzen dira. Pertsonalki ez zait gustatzen testu batean zehar beltza erabiltzea (bai izenburu edo azpi izenburuetan). Baina tira, nire iritzia da bakarrik.

HIZTUNEN BILAKAERA

Irakaskuntzari eta helduen euskalduntze-alfabetatzeari esker, euskaldunen kopurua nabarmen handitzen hasi zenean, zabaldu zen erabilerarekiko kezka. Esan bezala, euskaraz zekiten eta euskaraz ikasten zuten haur eta gazte horietako askok ez zuten euskaraz egiten eskola eremutik kanpo eta zerabilten euskara ere kezka iturri zen askorentzat.

Ikus dezagun aurrena, nolakoa izan den hiztunen bilakera.

Lehen hizkuntza

7. taula. Lehen hizkuntzaren bilakera adinaren arabera. Euskal Herria, 1991-2011 (%)

	Guztira	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
2011	2.649.000	594.000	605.000	747.000	446.000	257.000
Euskara	15,4	20,9	16,6	12,3	12,5	13,7
Euskara eta erdara	4,9	3,7	3,9	4,5	5,9	9,1
Erdara	79,7	75,3	79,5	83,2	81,6	77,2
1991	2.371.000	345.000	549.000	569.000	458.000	450.000
Euskara	19,5	27,7	21,3	18,8	15,8	15,7
Euskara eta erdara	3,0	2,7	3,0	2,3	3,6	3,4
Erdara	77,5	69,7	75,7	78,9	80,6	80,9

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

1991n jatorriz euskaldunak %22,5 ziren (lehen hizkuntza bezala euskara edo biak jasotakoak). 65etik gorakoen artean %30,4 ziren, adinean behera egin ahala ehunekoak jaisten zihoazelarik, proportziorik baxuena 16-24koen artean jaso arte: %19,1.

2011n orokorrean jatorriz euskaldunak gutxiago ziren (%20,3), baina proportziorik altuenak zaharren (%24,6) eta gazteenen artean (%22,8) jaso ziren.

EAEen 20 urteotan jatorriz euskaldunen proportzioa mantendu egin da %23aren inguruan, baina gero eta gehiago dira lehen hizkuntza gisa bi hizkuntzak jasotakoak, euskara bakarrik jasotakoak baino. Nolanahi ere, EAEko 16-24 urte artekoen artean euskara lehen hizkuntzatzen dutenak %29ra iritsi dira 2011n.

Ezagupena

3. taula. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera adinaren arabera.
Euskal Herria, 1991-2011 (%)


	Guztira	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
2011	2.649.000	594.000	605.000	747.000	446.000	257.000
Elebidunak	27,0	21,4	20,5	24,4	35,9	46,8
Elebidun hartzailleak	14,7	8,4	12,1	16,7	20,8	18,5
Erdaldunak	58,4	70,2	67,4	58,8	43,3	34,7
1991	2.371.000	345.000	549.000	569.000	458.000	450.000
Elebidunak	22,3	28,5	23,0	19,3	20,3	22,5
Elebidun hartzailleak	7,7	3,6	4,2	5,1	7,6	18,6
Erdaldunak	70,0	67,9	72,8	75,7	72,1	58,9

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

1991n, oraindik ere, 50etik gorakoen artean elebidunak (euskaraz hitz egiteko gai zirenak) gehiago ziren adin gazteagoetan baino. 2011n aldiz, egoera irauli egin da eta 50 urtetik beherakoen artean daude euskaldunen proportziorik altuenak; batez ere, gazteenen artean.

**Lehen
hizkuntzatat
euskara izan ez
duten
euskaldunen
(alegia,
euskaldunberrien)
pisua nola joan
den handitzen
euskaldunen
artean.**

Elebidunen bilakaera



Taula honek oso argi erakusten digu, lehen hizkuntzatat euskara izan ez duten euskaldunen (alegia, euskaldunberrien) pisua nola joan den handitzen euskaldunen artean, multzorik nagusia izatera heltzeraino. 1991n 65 urtetik gorako euskaldunen artean euskaldun berriak %1,4 izatetik, gaur egun 16-24 urte bitartekoen artean %51,8 izatera pasa gara.

Euskaraz ondo dakitenak 18 urtez beherakoen artean %80 inguru dira EAEn, %25 inguru Nafarroan eta %20 inguru Iparraldean. Euskal Herri osoan beraz, %70 inguruk euskaraz ongi daki. Oinarrizko ezagutza orokortu egin da EAEn eta goraka doa beste lurraldeetan. Eta Inkesta soziolinguistikoak, bestalde, "euskal elebidunek" pisua galdu dutela erakutsi digu. Gaur egun, euskaldun gehienak "erdal elebidunak" dira, alegia, erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnak.

Ikus daitekeen bezala, hiztunen tipologia aldaketa sakona izan da eta ikasleen beharren aldaketa erakarri du. Lehen prototipoa euskaldun zahar alfabetatugabea zen eta orain erdal elebiduna, ahazketasunean gabeziak dituena. Euskaraz zekiten haurrei irakaskuntza euskaraz se-


gurtatu eta hiztun berriak lortu nahi izatetik, euskara, ikasle gehienentzat, eskolako hizkuntza izatera pasa gara. Lehen hizkera formala zen lehentasuna eta gaur egun hizkera kolokial-informala lehentasuna izatera iritsi da, formalaren garrantzia gutxietsi gabe.

Izan ere, gazte euskaldun horietako askok ez baitute "guk" nahiko genukeen bezala hitz egiten: ez dute nahiko genukeen euskara maila kalitateari dagokionez, ez dute euskalkia menderatzen, adierazkortasunean arazoak izan ohi dituzte eta erdarazko maileguak, kalkoak eta kode-nahasketak ohikoak dira beraien eguneroko hizkeran...

Erabilpena

Soziolinguistika Klusterraren kale-erabileraren neurketen arabera, mende honetan, haurrak eta gazteak dira euskaraz gehien egiten dutenak, baina azken hamarkadan ez da hobekuntza nabarmenik jaso: haurren erabilera %18-20 artean dabil eta gazteena %13-14 artean.

Hizkuntzen Kale-erabileraren bilakaera adin-taldean arabera. Euskal Herria 1989-2011



Iturria: "Hizkuntzen kale-erabileraren VI. Neurketa, 2011" BAT aldizkaria 84 (2012)

Erabileraren geldiuine hori bat dator, etxeko erabilerako datuek erakutsi duten joerarekin. Azken Mapa Soziolinguistikoaren arabera, euskararen etxeko erabilerak ez du hobekuntzarik izan. Are gehiago, puntu bat behera egin du azken 20 urteotan: Maparen arabera 2011n %20,8 dira etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenak, 1991n %21,8 zirelarik.

**Euskara batez ere
eskolarekin
identifikatzen da.
Beste egoeratan
gaztelania da
nagusi. Euskarak
bigarren aukera
gisa proportzio
esanguratsuak
lortzen ditu
familiar eta
lagunartean,
baina oso kopuru
txikiak beste
jardueratan.**

Datu argigarriak eman dizkigun beste ikerketa, hezkuntza munduarekin zerikusia duten profesional guztiek arretaz irakurri beharko luketen ARRUE ikerketa izan da. Jasotako emaitzen arabera, ikasle gehienek errazago hitz egiten dute gaztelaniaz (%55 Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta %65 DBH2n), euskaraz hobeto moldatzen direnak %21 eta %18,5 direlarik, hurrenez hurren.

Jorratzen ari garen gaiarekin zerikusi zuzena duten datu hauek ere ageri dira txostenean:

— Euskara batez ere eskolarekin identifikatzen da. Beste egoeratan gaztelania da nagusi. Euskarak bigarren aukera gisa proportzio esanguratsuak lortzen ditu familiar eta lagunartean, baina oso kopuru txikiak beste jardueratan.

— Etxean batere euskararik ez darabiltenak %55 inguru dira bi ikasmaila horietan eta etxean euskara harreman hizkuntza nagusizat dutenak %18 bat.

— Eskolaz kanpoko jardueretan, nagusiki edo beti gaztelaraz ari direnak %50 LHM4n eta %63 DBH2n. Nagusiki edo beti euskaraz ari direnak, aldiz, %32 eta %21.

— Gaztelania da nagusi kultur kontsumoetan, telebistaren kasuan, esate baterako.

Eskola giroko hizkuntza erabileraren inguruko emaitzei dagokienez, hona nabarmenenak:

— Ikaskideekin gelan beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenak %60 dira LHM4n. Emaitzak irakurri nituenean datu hau ikaragarria iruditu zitzaidan. Izan ere, honek esan nahi du, haur eta nerabe horietatik gehiengo ia erabatekoak —gutxi edo gehiago— euskaraz hitz egiten duela edo hitz egin izan duela... eskolan behintzat. Ikaskideekin erdal praktika elebarkarrea mantentzen direnak, aldiz, %13 dira (eta irakasleekin %5). Hauxe da gure abiapuntu indargunea. Ez dago ehuneko horietara urrutitik ere heltzen den erabileraren inguruko beste daturik. Hauxe da, beraz, sendotu behar dugun oinarria.

— Datu horrek galera ikaragarria nozitzen du, ordea, mailaz igotzean, %60tik %28ra murrizten baita DBH2n. Eta ikaskideekin gelan hitz egitetik, jolasleketan hitz egitera igarotzean ere, askoz gutxiago erabiltzen dute: %29 LHM4n eta %18 DBH2n.

— Ereduen araberako aldeak ere handiak dira. Ikaskideekin gelan beti edo nagusiki euskaraz egiten dutenak D ereduaren nabarmentzen

dira: LHM4n %79 eta DBH2n %44. B ereduan herenak egiten du LHM4n eta DBH2n %8k. A ereduan ia inortxok ere ez.

— Erabilera ordea, dezente mantentzen da euskaldunak %60tik gora diren zonaldeetan. Pablo Suberbiolak (Tribuaren berbak: *Eskolan erabilera sustatuz*) dioen bezala, erabilera ez da jaisten ikasleak mailaz igotzen direlako, inguratzen dituen errealitate soziolinguistikoaren arauetara errenditzen direlako baizik.

ARRUE ikerketarekin amaitzeko aipa ditzagun eskola barruko euskararen erabilera gehien baldintzatzen duten faktoreak:

— LHM4n: hizkuntza-eredua, eskolorduz kanpoko jarduera, erraztasun erlatiboa eta irakasleen arteko erabilera.

— DBH2n: eskolorduz kanpoko jarduera, hizkuntza-eredua, etxeko erabilera eta irakasleen arteko erabilera. Etxeko erabilerak maila honetan pisu handia hartzen du (aurrekoan ez bezala).

Tipologia aldaketa

Hiztunen bilakaerak adierazten digu gaur egungo belaunaldi gaztearen ezaugarri soziolinguistikoak asko aldatu direla. Lehenengo aldiz gure historian gertatu diren aldaketa asko biltzen dira beraiengan. Izan ere lehen aldiz gure historian...

- Ez dago euskaldun elebakarrik.
- Euskaldun gazte guztiak alfabetatuta daude.
- Jatorriz erdaldunak gehiengo dira gazteen artean.
- Euskaldun gehienak ingurune erdaldunetan eta hirietan bizi dira.
- Oso ezagupen maila eta tipologia desberdinak daude euskaldunen artean.
- Euskaldun guztiok kode komun bat dugu: euskara batua.
- Euskaldun askok ez dute euskalkirik.
- Gazte euskaldun gehienak erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen dira.
- Euskaraz erdaraz baino hobeto dakien multzo unibertsitario esanguratsua sortu da.
- Euskaldun gehienak hobeto moldatzen dira euskaraz maila formalean informalean baino, eta batzuk hobeto idatziz hitz egiten baino.
- Ezagupena eta erabilpena zabaldu egin dira, baina trinkotasuna galdu da.
- Haurrek eta gazteek, helduek eta zaharrek baino euskara gehiago

Hiztunen bilakaerak adierazten digu gaur egungo belaunaldi gaztearen ezaugarri soziolinguistikoak asko aldatu direla. Lehenengo aldiz gure historian gertatu diren aldaketa asko biltzen dira beraiengan.

Datu hauen argitan —bestelako aldagaiak ez aipatzearren— esan genezake, euskalgintza fase aldaketa baten aurrean dagoela. D ereduan modu masiboan eskolatu den lehen belaunaldia lan munduan integratzen ari da eta guraso izaten hasi da. Honek esan nahi du, 80ko hamarkadarako egokiak ziren planteamenduak berritu eta egokitu egin behar ditugula. Eta ahozkotasunaren lanketa indartzeko planteamendua, egokitzapen horren zati garrantzitsua da.

darabilte.

- Erabilera indizeak hobetu egin dira, baina ezagupenetik erabilpenetarako jauzia ere handitu egin da.
- 5.000 biztanletik gorako herri gutxitan da euskara nagusi.
- Herritarren gehiengoak jarrera baikorra du euskararekiko.

Datu hauen argitan —bestelako aldagaiak ez aipatzearren— esan genezake, euskalgintza fase aldaketa baten aurrean dagoela. D ereduan modu masiboan eskolatu den lehen belaunaldia lan munduan integratzen ari da eta guraso izaten hasi da. Honek esan nahi du, 80ko hamarkadarako egokiak ziren planteamenduak berritu eta egokitu egin behar ditugula. Eta ahozkotasunaren lanketa indartzeko planteamendua, egokitzapen horren zati garrantzitsua da.

EUSKARAREN ERABILERA OZTOPATZEN DUTEN FAKTOREAK

I
Zerk eragozten dio euskaraz egin nahi duen pertsonari hala egitea? Zergatik egiten dute elkarrekin erdaraz euskararen alde dauden bi pertsonak?

Hainbat bilera, hitzaldi eta programatan hori galdetu diet gazteei: zergatik egiten duzue erdaraz, euskaraz egin dezakezuen pertsonekin? Zeintzuk dira horretara bultzatzen zaituzten arrazoirik nagusienak?

Jaso ditudan erantzunak, oro har, bat datoz gaiari buruz egin diren ikerketen emaitzekin. Ondoren, gehien aipatu diren arrazoiak zerrendatuko ditut, adibide gisa, esaldi batzuk erantsita.

1) Erdaraz hitz egiteko ohitura: *Kalean erdaraz hitz egiteko joera dago eta zaila egiten zait lagunekin euskaraz mintzatzea. Lehen hitza beti erdaraz ateratzen zait. Askotan gura barik. Klasetik ateratzen garenean erdaraz.*

2) Giroaren eta inguruaren eragina: *Inguruan erdaraz hitz egiten dute eta giroak erdaraz jartzen zaitu. Talde indarrak bultzatzen zaitu. Badago jendea ez duena ondo ikusten. 2 talde daude: euskaraz ari direnak eta erdaraz ari direnak.*

3) Solaskideen ezagupen maila: *Jende gehiagok daki erdaraz eta ez dakigu besteak euskaraz ba ote dakien. Iruditzen zait bestea euskaraz txarto moldatuko dela edo lotsa sentituko duela.*

4) Norberaren erraztasun falta: *Gaztelera gure artean errazagoa da. Euskaratik erdarara pasatzen naiz ez zaidalako ateratzen hitza. Klaseetan, zerbait zaila espresatzeko, erdara.*

5) Ulermen arazoak: *Euskaldun zahar batzuei ulertzea kosta egiten zait eta erdarara jotzen dut. Euskaldun zaharrekin nagoenean pittin bat "txikitu" egiten naiz nire euskara ikusita.*

6) Moda: *Modan dagoelako hitz egiten da erdaraz. "Guay" a izateko.*

7) Hizkuntza aldaketaren zailtasuna: *Kosta egiten da. Nagia ematen du. Pentsatu gabe hasten gara erdaraz. Zein hizkuntza erabiliko duzun unibertsitatera etorri aurretik definituta dago.*

8) Inork gutxietsiko dituen beldurra: *Beldurra daukagu, jendeak barre egingo digula edo mespretxatuko gaituztela. Nire euskalkian erosoago sentitzen naiz, baina beldur naiz besteek ez nautela ulertuko eta barre egingo didatela.*

Zortzi arrazoi horiek bi nagusitara ekar genitzake:

– Gaitasun erlatiboa.

Ikusi dugun bezala, gainera, ahozketasunaren lanketa eta komunikaziorako gaitasuna eta trebetasunak lantzea, oso garrantzitsuak dira oztupo mota hau gainditzeko.

– Ingurunearen erabilera ohiturak.

Baina jakin badakigu, ohitura horiek aldatzeko ahozketasuna lantzea ere bide eraginkorra izan daitekeela.

AHOZKOTASUNA ETA HIZKUNTZAREKIKO KONPLEXUAK

I Esango nuke, euskaldunak, oro har, ez garela darabilgun euskararekin seguru sentitzen. Euskaldun zahar ez ondo alfabetatuek uste dute beren euskarak ez duela balio, euskaldun berriek uste dute beren euskara ez dela "jatorra", herri txikietakoek "kashero" konplexuaren eraginez beren euskara "txartu" egiten dute hirietara joatean eta hirietako gazteei beren euskara plastikozkoa iruditzen zaie. Inork ez daki oso seguru "kuadrila, kuadrilla, koadrila edo koadrilla" idatzi behar den eta nahiz eta herriko eta familiako aitona-amonen artean inork ez esan "Komunera joan naiteke?", hori erakutsiko diete hurrei eskoletan bertoko esamolde jatorragoak erakutsi ordez...

Karikaturatik gutxi eta errealtatetik asko duten adibide hauen antzeko egoerek konplexuak, beldurrak eta inseguritateak eragiten dituzte: euskaraz hitz egitera ausartzen ez den gero eta jende gehiago ari naiz eza gutzen. Beraien ustez, ez dute behar bezala hitz egiten, eta hanka sartu eta barregarri geratzearen beldur, edo ezagutu duten presio zuzentzailereangatik erabileratik desertatu egin dute.

**Esango nuke,
euskaldunak, oro
har, ez garela
darabilgun
euskararekin
seguru sentitzen.
Euskaldun zahar
ez ondo
alfabetatuek uste
dute beren
euskarak ez
duela balio,
euskaldun
berriek uste dute
beren euskara ez
dela "jatorra",
herri
txikietakoek
"kashero"
konplexuaren
eraginez beren
euskara "txartu"
egiten dute
hirietara joatean
eta hirietako
gazteei beren
euskara
plastikozkoa
iruditzen zaie.**

**Euskal Herrian
abiapuntu
soziolinguistikoa
k oso
desberdinak dira
eta alde horiek,
ia
desberdintasun
dialektaltzat
hartu beharko
genituzkeela
iruditzen zait eta
norberak
konplexurik gabe
erabili behar
dituela erabili
ohi dituen hitzak
eta guztiz
errespetatu
besteenak.**

Ahozketasuna lantzean, aspektu psikologiko eta motibazionalak ere landu beharko dira, ahozko produkzioarekiko jarrera baikorra izan dadin. Ez dadila gertatu arrazoi batengatik ala bestearengatik, hiztunak galtzea. Batetik, gurea bezalako egoera batean, zuzenketak modu, une eta dosi egokitan egin behar dira; ez nonahi eta noiznahi, etengabe eta irizpiderik gabe. Hiztunon gaitasuna eta adierazkortasuna hobetzea da helburua, eta aitzitik, maiz, jendea nazkatu eta erdarara bultzatzen dugu! *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak* ikerlanean ere (Esti Amorrortu, Ane Ortega, Itziar Idiazabal, Andoni Barreña, 2009), ondorio honetara iritsi dira:

“Behar bezala edo primeran ez hitz egitea zigortzen duten jarrera arauemaileak eta euskaldun berriek hitz egiterakoan izan dezaketen blokeo psikologikoaren erlazioa nabarmendu behar da”.

Bestetik, ingurune eta jatorri erdalduneko hiztunen hizkera eta ahalegina prestigiatu egin behar dira. Ezin da “*euskañola*” beti eta nonahi negatibotzat jo, askorentzat erdaratik euskarara hurbiltzeko modu bakarra baita. Gainera, euskaldun berri asko entzun dut kexaka, “*Non utxiko dut hau?*” edo “*Ni euskaras es du oso ondo hitxegiten*” esan eta zenbaitek barre egin dietelako. Beste batzuk berriz deseroso sentiarazten dituzte hitz *pedanteak* erabiltzen dituztelako. Gasteiztar batek esaten zidan beraiek ez dutela sekula *tenedorerik* erabiltzen, *sardexkak* baizik eta ez direla inoiz *aszensorean* sartzen, *igogailuan* baizik. Eta eremu euskaldunetara doazenean ez dakitela zer erabili eta zer ez, beraientzat “*puerta zabaldu*” bezain erdarakada delako “*zopa kutxareekin jatea*”.

Euskal Herrian abiapuntu soziolinguistikoak oso desberdinak dira eta alde horiek, ia desberdintasun dialektaltzat hartu beharko genituzkeela iruditzen zait eta norberak konplexurik gabe erabili behar dituela erabili ohi dituen hitzak eta guztiz errespetatu besteenak. Eta hausnarketa hau ahoskerara ere zabalduko nuke, askoren euskarak ez baititu *ts*, *tz* eta *tx* bereizten, konparazio batera.

Nolanahi ere, testuinguru honetan, arrisku-marra batzuk marraztuko ditugu eta joera hauek zer eskaintzen duten eta zer nolako arriskuak dituzten deskribatuko, hizkuntzaren etorkizuna eta bilakaera, marra hauek mugatzen duten joko-zelaian jokatu direla iruditzen baitzait.

— Fossilizazioa (vs. Jarraidura):

Hizkuntzaren barruan aldaketarik ez onartzea. Euskalkiak duela ehun urte hitz egin ziren bezala mantendu nahi izatea edo euskara

batuaren arauetatik ateratzen den guztia arbuiatzea.

Arriskuak: Hizkuntzen barne garapen-indarra zikiratzea eta fenomeno berritzaile guztiei atea ixtea. Eta eboluzionatzen ez duen hizkuntza, lehenxeago edo beranduxeago, hil egiten da.

Aukerak: Hizkuntzaren senari jarraitzea eta gure hizkuntza ondarea ezagutu eta erabiltzea.

— **Degradazioa (vs. Hibridazioa):**

Adierazkortasun bila beti erdaretara jotzea, euskararen berezko baliabideak erabili gabe.

Arriskuak: Erdarekiko menpekotasuna, hizkuntza kolonizazioa, gure tradizioarekiko etena eta Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldunen arteko erabateko urrunketa.

Aukerak: Gure jarduera komunikatiboetan, behar ditugun maileguak erabiltzea.

— **Txokokeria (vs. Tokikotasuna):**

Lokalismoen eta bereizkerien neurritz eta lekuz kanpoko erabilera.

Arriskuak: Hizkuntza komunitatea zatikatzea.

Aukerak: Tokian tokiko hizkerak zaindu eta erabiltzea, adierazkortasuna indartuz.

— **Garbizalekeria (vs. Jatortasuna):**

Hizkuntza babesteko, beste hizkuntzen eragina deuseztatzen saiatzea.

Arriskua: Komunikazioa zailtzea eta hartzaileekiko distantzia handitzea. Arbuioa sortu, hiztunak uxatu eta azkenean, erdara erabiltzera edo kontsumitzera bultzatzea.

Aukerak: Erdarekiko menpekotasuna murriztea eta euskararen baliabideak gehiago erabiltzea.

Garbi dago etorkizuneko belaunaldi gazteen ahozko euskara desberdina izango dela. Eta aldatzen ari diren hizkera horiekiko gure jarrerak ere aldatu egin beharko genituzke. Hizkera nahasiekiko edo “euskañol”arekiko arbuioa baino, onarpen kritikoa eta hobekuntzarako dinamikak bultzatuko nituzte. Bilakaera honetan, ahozketasunaren lanketa funtsezkoa gerta daiteke gure ondare linguistikoaren ahalik eta zatirik handiena mantendu ahal izateko.

Gaur egungo euskara kolokiala

Gaur egungo euskara kolokialaren oinarritzko ezaugarri batzuk aipatze aldera honako hauek nabarmenduko ditugu:

Bestalde, teknologia berrien zabalkuntzaren eraginez, ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko mugak lausotzen joan dira. Ahozkoan oinarrituriko idazkera informala sortu da. Fenomeno honek, gazteen hizkuntza mailari buruzko kezka areagotu eta jarrera desberdinak eragin ditu Euskal Herrian eta mundu osoan: aldekoak batzuk, eta arbuiozkoak bestiak.

— Euskara nahasia da:

- Euskara eta erdara(k) nahasten dira.
- Batua eta euskalkiak nahasten dira.
- Erabilera formalak eta informalak / zuzenak eta ez zuzenak.

— “Code-switching” fenomeno (euskañola edo frantseuskara) guztiz orokortu da hiztunen artean. Adierazkortasun bila sistematikoki erdarara jotzen da. Asisko Urmenetak 2003ko Mendebaldea Alkarteak antolaturiko jardunaldietan galdetu zuen bezala: “*Kolokiala = koloniala?*”.

— Taldetasuna eta gertutasuna indartzen ditu.

— Arauaren eta estandarren aurkako jarreraren isla da. Jarrera hori asko zabaldu da, euskalkiekiko sinpatia hedatu den ber.

— Hizkuntza egituren erabilera desegokiak orokortu egin dira.

- Erdararen kalkoak ohikoak dira.
- Herrietan, kontsensuzko forma linguistiko berriak sortu dira edo usadiozko batzuei bestelako erabilera eman zaie.
- Usadioarekin eta zuzentasun gramatikalarekin bat ez datozen erabilerak ugalduta dira.

— Ez dago gazte hizkera edo hizkera kolokial nazionalik. Ipar eta Hegoaren arteko leizea gero eta sakonagoa da. Maila lokaletik ekarpen gutxi iristen da maila nazionalera.

— Euskalkiek edo azpieuskalkiek bateratzeko joera ageri dute.

- Lexiko aldaketa eta bateraketa ari da gertatzen.
- Euskalkiak adierazkortasuna lortzeko bide gisa erabiltzen dira.

Bestalde, teknologia berrien zabalkuntzaren eraginez, ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko mugak lausotzen joan dira. Ahozkoan oinarrituriko idazkera informala sortu da. Fenomeno honek, gazteen hizkuntza mailari buruzko kezka areagotu eta jarrera desberdinak eragin ditu Euskal Herrian eta mundu osoan: aldekoak batzuk, eta arbuiozkoak bestiak.

Orreaga Ibarra irakasleak “Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa” liburuan 15-27 urte bitarteko Iruñerriko gazte euskaldunen ahozko hizkera aztertu du (Tribuaren berbak: *Nola hitz egiten dute gazteek?*). Azterketaren abiapuntuan baieztapen bat dago: euskararen egoera nabarmen hobetu bada ere, hainbat ahultasun ere nabarmenak dira: jakintza eta erabileraren arteko aldea, euskararen egoera funtzional erabat desorekatua edo gazte askok dituzten adierazgarritasun-arazoak. Erregistro landu eta formaletan aurrera egin dugun arren, maila informaleko adierazpen-moduetan atzera egin dugu.

Gazteek beren hizkera nola ikusten duten ere aztertu du: segurtasun eza sentitzen dute beren erregistroarekiko, euskaldun zaharrekiko distantzia linguistiko handia nabari dute, beren euskara maila ez dela ona uste dute eta gaztelaniaren eragin handia duen euskara pobrea darabiltena. Baina Ibarrek dioten bezala, kalkoak edo interferentziak bezalako fenomenoak ez dira beti eritasunaren seinale, aitzitik, gehienetan osasun ona adierazten dute. Hasteko behintzat, hizkuntza bizirik dagoen eta berritzen ari den seinale baitira.

AHOZKOTASUNA ETA HIZKUNTZA KALITATEA

I

Deskribatu berri dugun errealitate soziolinguistiko honetan oinarrituta, Andoni Egañak, Joxerra Garziak eta hirurok, *“Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako”* txostena idatzi genuen Euskararen Aholku Batzordearen eskariz. Eta ordutik hamarkada bat pasa bada ere indarrean dagoela uste dut. Gogora dezagun laburki.

Hizkuntzaren kalitatea definitzerakoan hiru maila desberdinu genituen:

- **Euskara zuzena:** Euskaltzaindiaren arauen arabera euskara da zuzena, arau horiek aplikagarriak diren egoera komunikatiboetan. Ortografia, joskera, ahoskeran...
- **Euskara jatorra:** Euskararen senaren edo usadioaren arabera da euskara jatorra.
- **Euskara egokia:** Bere xederako egokia dena da euskara egokia. Egokitasun kontzeptu honetan txertatzen dugu, beraz, eraginkortasunaren alderdia. Zuzentasunaren eta jatorritasunaren aldean, kontzeptu aldakorra da egokitasunarena.

Txostenean aipatu eta aurkezpenetan askotan errepikatu genuen ordura arteko (eta gaur egun arteko) ahaleginetan zuzentasunari eman izan zitzaizkion lehentasuna, eta hurrena jatorritasunari. Aurrean izan ditugun entzule gehien-gehienak bat etorri izan dira baieztapen honekin. Eta praktika honek, besteak beste, eredu estandarretik urrutiko hizkera darabilten hiztun egoki askoak konplexuz betetzeko balio izan du. Eta hiztun egoki horiek, herri txiki euskaldunetatik, hiri ertainetako ikastola edo ikastetxeetara joandako ikasleak izan direnean ere, egoera berbera errepikatu da.

Askotan esan izan dugun bezala, komunikazio egoera bakoitzak bere egokitasun propioa du. Egoera jakin baterako ezinago egokia den hizkera zeharo desegokia izan liteke beste baterako. Hain zuzen ere,

**Etorkizunera
begira funtsezkoa
izango da,
hizkuntza
arazorik gabe
erabiltzeko gai
izango diren
hiztun osoak
izatea. Euskarak
hiztun horien
behar
komunikatibo
guztiak asetu
behar ditu,
arazorik gabe
erabil dezaten,
eta horretarako
ahozketasuna
lantzea
ezinbestekoa
izango da.**

hori da hiztun egokiaren gaitasun bereizgarria: aldiaren egoeran hartarako egokia den hizkera erabiltzen jakin eta asmatzea. Asko ez ezik askotarikoak dira egokitasunean daragiten faktoreak, eta hizkuntzaz kanpokoak dira, gainera, den-denak. Hona hemen faktoreetako garrantzitsuenak: xedea, xede-taldea, mezu-bideak eta hizlariaren hizkuntza gaitasuna.

Hiztun ona, beraz, euskara egokia, jatorra eta behar den guztietan zuzena erabil dezakeen hori izango litzateke. Kalitate osoak hiru maila horiek bilduko lituzke.

Esan genezake ikuspegi hau asko zabaldu dela —teorikoki bederen— txostena kaleratu genuenetik eta onarpen zabala lortu duela. Praktikarako jautzia, ordea, emandako aurrerapausoak oraindik ere laburrak dira. Izan ere, irakaskuntza barruan ahozketasuna ez da behar bezala jorratu eta askotan aipatu izan dugun bezala, gure ikasleak neurri handi batean “mutu” hezitzen jarraitzen dugu.

Aitzitik, irakaskuntzan komunikazioari eta ahozketasunari garrantzia aitortzen dieten ekarpenak ugaritu egin dira urteotan. Ikastaro honetan bertan ezagutu ditugun esperientziak dira horren adibide. Baina uste dut, hori guztia garrantzitsua izan arren, ez dela nahikoa eta gai honekin, jauzi kualitatiboa emateko garaia heldu dela.

ESKOLAREN EGITEKOA, MUGAK, ETA EZINBESTEKO BIDELAGUNAK

I

Etorkizunera begira funtsezkoa izango da, hizkuntza arazorik gabe erabiltzeko gai izango diren hiztun osoak izatea. Euskarak hiztun horien behar komunikatibo guztiak asetu behar ditu, arazorik gabe erabil dezaten, eta horretarako ahozketasuna lantzea ezinbestekoa izango da.

Ibilbide honetan, eskolak eta hezkuntza administrazioek berebiziko erantzukizuna dute, baina helburuak betetzeko ezinbesteko bidelaguntzat izan beharko dituzte maila guztietako administrazio publikoak eta hedabideak.

Eskola

Bada galdera bat berriro planteatu beharrekoa: gure eskola sistemak landu behar al du ahozketasuna? Nik baietz uste dut. Gure egoera soziolinguistikaren ezaugarri eta premia bereziek hartara bultzatzen

gaituzte, inguruko "estatu hizkuntzetan" oinarrituriko eskola sistemetan horrelakorik egiten ez bada ere.

ARRUE ikerketak erakutsi digu eskola dela euskararen gotorlekua eta asko egin duela eta asko ari dela egiten. Baina orain arte lortutako emaitzak hobetu egin behar ditugu, eta horretarako beste eragile batzuen babesa eta laguntza ezinbestekoa da. Eskolak bakarrik ezin du. Eta horretarako arrazoiak eskaini ditu Mikel Zalbidek, esate baterako, ikasleen euskara maila baldintzatzen duten bost faktore nagusiak aipatu dituenean (Tribuaren berbak: *XXI. mendean, hamaika tribu, hamaika euskara*): berezko gaitasuna, etxea, kaleko hizkera nagusia, lagunartea eta eskola. Eskolak faktore hauetako batzuetan eragin dezake, baina ez guztietan eta ehuneko ehunean.

Eskolari dagokionez, erronkarik nagusienak une honetan honako hauek izan daitezke:

- Ikasleen euskararen ezagupena orokortu eta sendotzea.
- Erabilera dinamikak sortu eta mailaz-maila egonkortzea.
- Eskolaren mugak gainditu eta erabilera eskolako hormetatik kanpo hedatzea.

Helburu orokor horiek lortzeko, honako lan-ildo hauek lehenetsiko nituzke:

- "Hizkuntza kalitatea" txostenean adierazitako bidetik, euskararen irakaskuntza egokitasunaren parametroetatik bideratzea eta ez zuzentasunarenetik. Alegia, komunikazioa, ahozketasuna eta erabilera bera jarri behar ditugu euskararen irakasketaren erdigunean.
- Ikuspegi hau, eskoletako normalkuntza plangintzetan txertatu behar da eta beraien inguruan ahalik eta adostasunik eta inplikaziorik zabalena lortu hezkuntza komunitate osoan, batez ere, zuzendari-tzarena eta arduradun nagusiena. Kanpaina solteak ez dira aski!
- Andu Lertxundik zioen bezala (Tribuaren berbak: *XXI. mendean, hamaika tribu, hamaika euskara*), iraultza handi bat egin beharra dago eskolan ahozketasunaren alde. Ez idatziaren kaltetan, baina pentsatuz idatziak izango duela bere garaia, azken mailetan edo unibertsitatean, eta garai hori aberatsagoa izango dela ahozketasuna ondo finkatu baldin badugu aurretik.
- Ahozketasunaren lanketa ezin liteke "euskara" gaira murriztu. Irakaskuntza sistema osoak hartu behar du aintzat. Batetik, gai guztiak barneratu eta jorratu ahal izateko trebetasun ezinbestekoa

Hizkera informala jorratu behar da eta euskalkia indargune eta lagungarri gisa hartu. Gai honekin eztabaida handiak daude eta oso jarrera desberdinak. Nire aldetik esango nuke, euskalkia ez nukeela maila normatiboan erakutsiko, hizkera kolokiala indartzeko tresna ireki eta arautugabe bezala baizik, erreferentzia batzuk edukitzea lagungarria eta beharrezkoa gerta badaiteke ere.

delako. Eta bestetik, gure gizartean komunikazioaren garrantzia gero eta handiagoa delako eta lanbide gehienetan behar delako: irakasle, dendari, mediku, abokatu, etab.

— Ahozketasuna lantzea, euskara bera eta tokian tokiko baliabide linguistikoak lantzea ere bada. Era horretan, gure ondare linguistikoa berrerabiltzeko aukerak sortzen dira, hizkuntza sormenari atak zabaltzen zaizkio eta erabilera inertiak eragiten dira. Bide honetan, metodologia eta teknika berriak behar ditugu.

— Lanketa honetan, hizkera informala jorratu behar da eta euskalkia indargune eta lagungarri gisa hartu. Gai honekin eztabaida handiak daude eta oso jarrera desberdinak. Nire aldetik esango nuke, euskalkia ez nukeela maila normatiboan erakutsiko, hizkera kolokiala indartzeko tresna ireki eta arautugabe bezala baizik, erreferentzia batzuk edukitzea lagungarria eta beharrezkoa gerta badaiteke ere. Hitanoarekin gauza bertsua. Berreskurapen lan hau gaur egungo arau sozialetara eta errealtate soziolinguistikora egokitu behar da. Noraino eta nolako hitanoa berreskuratu edo sozializatu daiteke? Noka eta toka bereiztuta edo toka denentzat erabiliz, esate baterako?

Ahozketasuna lantzerakoan gainera, oso aintzat hartu beharreko aspektu batzuk aipatu nahi ditut:

— Hizkuntza maitasunez eta umorez ikasi eta landu.

Joseba Ibarak zioen bezala (Tribuaren berbak: *Euskara ikasteko hamaika bide*), "atzerriko ikasleek euskara ikasiko badute, maitasunez irakatsi behar zaie". Baina ideia honek bertako ikasleentzat ere balio du, eta baita ahazketasunaren lanketarako ere. Eta maitasunarekin batera, umorea ere ezinbestekoa izango zaigu langintza honetan.

— Soziolinguistikazko oinarriko edukiak landu.

Gure egoera soziolinguistiko minorizatua ulertzeko eta ohiko gertaera linguistikoak interpretatu ahal izateko oinarriko klabeak eskaini behar dira: zergatik hitz egiten dugun hitz egiten dugun bezala, batua eta euskalkiaren arteko harremanak, beren euskara motaren aurrean hainbatek izan ditzakeen erreakzioen aurreko prebentzio lana, etab.

— Konplexu eta gabezia linguistikoak gaititu.

Hiztunen autoestimua linguistikoa indartu, batez ere, ingurune erdaldunetan. Adimen emozionalaren teknikak landu ikasketen prozesuan eta ondorengo erabilerara begira.

— Hizkera eta euskalki desberdinen arteko harremanak bultzatu. Ikasleek beste hizkerak eta azentuak ezagutu ditzaten, eta bide

batez, prestigiatu ditzaten, oso onuragarria litzateke eremu desberdinetako ikastetxeen arteko harremanak sustatzea.

— Belaunaldi zaharrekiko harremanak estutu.

Adinekoak eta haurrak harremanetan jarri transmisio linguistikokulturala lantzeko, beraien erabilera moldeak jasotzeko, etab.

— Hizkuntzaren ikasketa jolas eta gozamen bihurtu.

— Kultur testuingurua jorratu eta erabilerarako aukerak bermatu klaseetatik kanpo. Mintzalagunak, erreferentziak, ikastaroak, ekitaldiak... Euskararen irakaskuntza ezin daiteke gramatika baten ikasketa izan, kultur testuinguru jakin batean kokatzen den komunikaziorako hizkuntza baten ikasketa baizik.

Administrazio publikoak

Administrazio publikoek (goi mailako erakundeak eta udalak) irakaskuntzan egiten den lana babestu, garatzeko eremuak eskaini eta baliabidez hornitu behar dute. Ezin dugu ahaztu Iñaki Arrutik gogorarazi ohi digun bezala hurrek eskolan esna orduen %14 inguru pasatzen dutela (Tribuaren berbak: *Eskolatik kalera*).

Urte hauetan, egokitasunean, komunikazioan eta adierazkortasunean oinarritutako hizkuntza kalitatearen ikuspegiak bere bidea egin du eta hizkuntza normalizazioaren agendan sartu da.

Ahozketasuna lantzeko sustatzen ari diren edo indartu daitezkeen lanildoen artean honako hauek aipatuko ditugu:

— Aisialdi eta eskolorduz kanpoko jardueretako hizkuntza erabilerarako irizpideak finkatu eta programak sustatu.

- Euskarazko eskaintza bermatu eta orokortu, irakaskuntzatik kanpoko erabilera aukerak handitzeko. Ezin dugu ahaztu EAEn eta Nafarroako eremu euskaldunean haur guztiek ulertzen dutela euskaraz.

- Monitorean prestaketa bereziki landu, bai gaitasun linguistikoari dagokionez, hala nola oinarritzko ezagutza soziolinguistikoei dagokienez.

— Ahozko ondarearen bilketa lana bultzatu: “*Ahotsak*” proiektua, esate baterako.

— Gero eta udalerrri gehiagotan egiten ari diren bezala, ahozketasuna lantzeko materialak sortu: ikerketak, material bilketak, liburuak, unitate didaktikoak, hitano ikastaroak, etab.

— Kultur produktu eta zerbitzu egokiak eta erakargarriak euskaraz

Belaunaldi gazte bat ari da inkorporatzen profesional gisa euskal hezkuntza sistemara. Garrantzitsua da belaunaldi honek jakin dezan zergatik ez den ahokotasuna behar bezala landu orain arte gure hezkuntza sisteman. Izan ere, euskararen normalizazioari zabaltzen zaion fase berri honetan, belaunaldi honek ekarpen garrantzitsua egin dezakeelako ahokotasuna eta ikasleen gaitasun komunikatiboa, orain arte ez bezala lantzen eta ikasle horiek erabilerarako trebatzen eta motibatzen.

eskuragarri izan daitezten bermatu, bai maila nazionalean, hala nola lokalean: sare sozialak, zinema, musika, telefonia, jokoak, Internet...
— Euskararen arnagune geografiko nahiz funtzionalak hedatu.
— Familia eta ingurune hurbilaren inplikazioa eta konpromisoa areagotzeko egitasmoak.

Hedabideak

- Hizkuntzaren eta hiztunen beharren inguruko hausnarketa bultzatu behar da eta behar horiek betetzera bideratutako estrategia linguistikoak landu.
 - Erabiliko den edo diren erregistroen inguruko planteamenduak zehaztu.
 - Euskara estandarraren ahoko erabilera eremuak definitu: programak eta partaideak.
 - Euskalki eta hizkera desberdinen presentzia indartu: irratien arteko programa trukeak, hizkera desberdinen presentzia orekatuagoa...
 - Ipar eta ekialdeko hizkeren presentzia handitu eta mendebaldeko euskararen erabileraren inguruko oinarritzko irizpideak finkatu.
- Euskarazko hedabideetan (eta berezi EITBn) ahokotasuna, erregistroak eta hizkera kolokiala sustatzeko helburua txertatu programazioan. Gure egoera ez normal honetan, erregistro kolokial nazionala sortu eta indartzeko biderik eraginkorrena dira hedabideak (Gaztea edo ETB1eko hainbat programa, esate baterako).

ONDORIOAK

I Ahokotasunaren gaia ez da gai zentrala izan euskal soziolinguistikan, oraintsu arte. Eta gero eta garrantzi handiagoa ematen zaion arren, oraindik ere, maila apalean ikertu eta lantzen da.

Ahokotasunaren lanketa eskasaren arrazoiak topatu nahian, gure historia soziolinguistiko hurbila arakatu dugu, eta ohartu gara joan den mendearen azken zatian, lehentasun erabatekoak zirela hiztunak sortzea eta eredu formala finkatu eta hedatzea. Baina euskaldunen tipologiak eta errealitate soziolinguistikoak aldatzen joan diren neurrian, ahokotasunak garrantzi handiagoa hartu du, baita soziolinguistikaren ikuspegitik ere.

Azken urteotan, gainera, belaunaldi gazte bat ari da inkorporatzen profesional gisa euskal hezkuntza sistemara. Garrantzitsua da belaunaldi

honek jakin dezan zergatik ez den ahozketasuna behar bezala landu orain arte gure hezkuntza sisteman. Izan ere, euskararen normalizazioari zabaltzen zaion fase berri honetan, belaunaldi honek ekarpen garrantzitsua egin dezakeelako ahozketasuna eta ikasleen gaitasun komunikatiboa, orain arte ez bezala lantzen eta ikasle horiek erabilerarako trebatzen eta motibatzen.

Eta ikastaroan aipatu genuen bezala, horretarako errezeta magikorik ez dagoenez, eta baliagarriak zaizkigun nazioarteko erreferentziak ere urriak direnez, erronka ederra dugu begien aurrean; ahozketasuna euskaratik eta euskaraz lantzeko ereduak sortzea eta praktikara eramatea. Ilusioz heltzeko moduko erronka, ezbairik gabe. ●

BIBLIOGRAFIA

- Amonarriz, Kike (2004). *Ahozketasuna eremu ez-kurrikularrean. Hizkuntza proiektuaren markoan*, BAT 51: 137-156.
- Amonarriz, Kike (2003). *Hizkuntza kalitatea, burujabetza linguistikoa da*. BAT, 49: 157-163.
- Amonarriz, Kike (2002). *Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena: gazteak eta euskara mendearen hasieran*. Ikastolen Elkarte: IX: Jardunaldi Pedagogikoak: 417-465.
- Amorrotu, E; Ortega, A; Idiazabal, I.; eta Barreña, A. (2009). Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak. Eusko Jaurlaritz. Kultura Saila. Gasteiz.
- Askoren artean (2013). *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua*. Eusko Jaurlaritz. Gasteiz.
- Askoren artean (2012). *Hizkuntzen kale-erabileraren VI. neurketa, 2011*. BAT 84
- Askoren artean (2010). *Ahozko hizkuntza lantzen* Hik Hasi 25.
- Askoren artean (2010). *Ahoa bete hots jardunaldiak*. Bertsozale Elkarte eta Mintzola. Andoain.
- Askoren artean (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Soziolinguistika Klusterra/E.Jaurlaritz.
- Askoren artean (2003). *Ahozketasuna aztergai*. Mendebalde K.E. Bilbo.
- Askoren artean (1986). *Hizkuntza minorizatuen soziologia*. Ttartalo. Donostia.
- Badihardugu Euskara Elkarte (2005). *Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak*. Eibar.
- Etxegoien, Fermin (2004). *Neurona eta zeurona*. Pamiela. Iruñea.
- Euskararen Aholku Batzordea (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Eusko Jaurlaritz. Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritz (2014). *V. Mapa Soziolinguistikoa. 2011*. Eusko Jaurlaritz. Gasteiz.

- Eusko Jaurlaritza (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa. 2011*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.
- Garzia, Joxerra (2008). *Jendeurrean hizlari*. Alberdania. Irun.
- Ibarra, Orreaga (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. N.U.P. Iruña.
- Izagirre, Koldo (1981). *Euskal lokuzioak*. Hordago. Donostia.
- Lertxundi, Anjel (1982). *Haur literaturaz*. Erein. Donostia .
- SIADeco (1978). *Euskararen liburu zuria*. Euskaltzaindia. Bilbo.
- SIADeco (1979). *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. Euskaltzaindia. Bilbo.
- Zalbide, Mikel (2010). *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. Euskaltzaindia. Bilbo.
- Zalbide, Mikel (1994). *Eskola-munduan erabiltzen den Euskara: egungo egoera eta zenbait hobekuntza-bide*. Euskera 1994,1. Euskaltzaindia. Bilbo.
- Zuazo, Koldo (2008). *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia. Elkarlanean.

“Tribuaren Berbak” saioaren atal hauek (www.blogseitb.net/euskara-nedo www.eitb.tv/eu-n):

- 5. atala: Nola hitz egiten dute gazteek?
- 13. atala: Jendeurrean.
- 16. atala: Gelatik kalera.
- 24. atala: Batua vs. euskalkiak.
- 26. atala: Ahoz aho, belaunez belaun.
- 32. atala: Zergatik ez dugu egiten?
- 38. atala: Euskara ikasteko hamaika bide.
- 41. atala: Etxe barruko erronka.
- 54. atala: XXI. Mendean, hamaika tribu, hamaika euskara.
- 56. atala: Eskolan erabilera sustatuz.